Mª ROSA ARANBURU URKIZU
50 URTEZ (1953-2003) KARMELDAR MISIOLARIA



Mª Rosa Aranburu Urkizu 1933ko abuztuaren 30ean jaio zen, Hernanin (Gipuzkoa), Jauregiko Limoi baserrian; baina berehala Agerre baserrira aldatu zen familia, eta hantxe igaro zuen Mª Rosak haurtzaroa.

Oronoz-Mugairiko (Nafarroa) Karmengo Ama Birjinaren kolegiora joan zen 1943ko maiatzaren 13an eta zazpi urtez egon zen Karitateko lekaimeekin. Aita gerran hil zitzaion eta, gerran hildako baten umezurtz izanik, kolegio horretarako aukera zegokion. Heziketa aberatsa, sendoa eta ondo hornitua jaso ondoren, etxera itzuli zen; eta 1952ko otsailaren 24an baserritik Iruñera atera zen, Karmeldar misiolari izatera.

Botoak, 1953ko abuztuaren 29an egin zituen.

Erizain diplomatua da, ATS ikasketak Madrilen egin zituen. Kliniketatik ospitaletara eta ospitaletatik kliniketara pasa ditu 50 urte, lau kontinentetan barrena. Mundu zabalean ibili izanak hainbat hizkuntza ikastea ere ekarri dio, hain zuzen, sei hizkuntza: euskara, gaztelania, ingelesa, italiera, arabiera eta txewera (Malawiko hizkuntza).

Gaur egun oso sentsibilizatuta gaude Hernanin misio eta misiolariekin. Ugari dira laguntza ematen duten gobernu elkarteak, eta baita gobernuz kanpokoak ere. Badirudi bat-batean denok jabetu garela munduaren egoeraz. Makina bat gazte daude prest beharrean dauden toki zailenetan eta arriskutsuenetan sartzeko, eta bertan laguntza emateko.

Herriak herriekin anaitzen dira. Ekintzak burutzeko, edo luzarora begirako emaitzak ikusteko, jarraipena behar da. Eta horrek Jaunarengan konfiantza izatera behartzen gaitu, isil-isilik lan egitera, apal eta umil, ekin eta ekin, jarrai eta jarrai, ahal den arte. Ekintzen bidez testigantza ematera, Jesusek esaten digun bezala: "*Begiratu, Ni zuekin nago egunero denboraren bukaera arte*" (Mt 28,20)

Mª ROSA KARMELDAR MISIOLARIAREN IBILERAK. Mª Rosa beti bizi izan da misio lanetan buru-belarri murgilduta. Hainbat gorabehera bizi izan ditu, beldurrik gabe, gaixoei laguntzen, Jaungoikoaren nahiari erantzunez. Rosak dio: "*Egin beharrak une zailenetan ziurtatzen du bakoitzaren ondo egina*". Hau da, laguntza zuzena testigantza handiagoa da, sermoi edo hitz jario asko baino.

Kolegiotik etorri zenerako, erabakia hartua zuen: lekaime izatea. Segituan joan nahi izan zuen karmeldarrek Iruñeko San Juan auzoan zuten komentura. Baina familian ezbehar larria zuten. Hirugarren ahizpa, Benitatxo, gaixorik etorri zen kolegiotik. Gaitza txarra zen, meningitis tuberkulosoa, eta ez zen erraza sendatzeko.

Mª Rosak bere bokazioari jarraitzeko joan egin nahi zuela etxean azaldu zuenean, 1950eko ekainean, amak esan zion itxaroteko, ahizparen gorabehera ikusi arte. Benitatxo 16 urterekin hil zen, 1951ko apirilaren 16an. Hileta hunkigarria izan zen. Kolegiotik autobus bat, ikaskidez betea, etorri zen Hernanira. Handik hilabete batzuetara joan zen Mª Rosa komentura.

Mª Rosak ere maite zituen dantzak, soinuak eta gainerako guztiak; hala ere, bere bokazioari eutsi zion, eta nobiziatua egitera joan zen. Ahizparen lutua hiru urtez eraman beharrean suertatu zen (ohitura zenez); beraz, ez festarik, ez erromeriarik, ezta dantzarik ere. Garai hartan, Mª Rosa San Antonio klinikara joaten zen igande arratsaldetan; karmeldarrak zeuden han gaixoak zaintzen, eta Mª Rosak lagundu egiten zien, eta aldi berean ikasi egiten zuen.

Mª Rosa karmeldarra. Nobiziatua Iruñean egin ondoren, "boto" guztiak, **Madril** aldera jo zuen; han, Mateo Milano klinikan lan eginez eta ikasiz atera zuen ATS agiria edo erizain diploma. Ondoren, **Sta. Cruz de Tenerife**n eman zioten destinoa, Clinica Zerolon. Tenerifen 1954tik 1958ra egon zen.

Berriro Iruñera etorri zen, "Votos perpetuos" egitera; 1959an egin zituen. Garai hartan kongregazio horretako lekaimeek ez zuten etxera etortzeko baimenik izaten.

Kubara abiatu zen 1959ko abenduan, harako eman zioten destinoa betetzera, beste hiru lekaimerekin batera; Galiziatik itsasontziz atera ziren eta Venezuelako La Guara kaira iritsi ziren. Eguna libre eman zieten itsasontzitik ateratzeko;

Hernaniko giroa urte haietan

Urte haietan Hernanin izugarrizko mugimendua zegoen gazteen artean. 1948tik 1960ra arte Luistarrak eta Mariaren Alaba kongregazioak elkarrekin lan asko egin zuten, eta jendearentzat gustuko ziren ekintzak antolatzen zituzten. Beste ekintza batzuez gainera, buletina ere ateratzen zuten hilero, herriari informazioa emateko. Ekintza horien erakusgarri dira, adibidez, hiru zartzuela obra ikasi eta antzeztu izana tarte laburrean:

- 1948-VIII-31 "El verdugo de Sevilla".
- 1951-II-23 "La verbena de la paloma" (hiru emanaldi egin zituzten).
- 1952-II-20 "Katiuska" (lau bider antzeztu zuten, eta gerora beste behin ere eman omen zuten).

Urte horietan hasi ziren, baita ere, Euskal Jaiak Donostian. Eta Hernanitik hiru bider joan ziren "Euskal Ezteiak" ikuskizuna ematera.

Pilotak ere indar handia zuen, goi mailako partidak jokatzen baitziren. Frontoian pilotariak beren jantzi zuri eta garbiekin ikustea pozgarria zen. Eta egunik ikusgarriena San Joan aurretik ospatzen zen San Luis eguna izaten zen, ekainaren 21a. Hortik aurrera hasten ziren festak errenkadan.

Eta zer esanik ez Tilosetako soinu eta dantzek zuten sona handia, jende asko erakartzen baitzuen Hernanira.

Eskerretik eskuinera 2.a, Mª Rosa.



bilbotar emakume ezagun bat zuten zain, eta horrek lau lekaimeak bere autoan hartu eta berarekin eraman zituen paraje eta txoko batzuk ezagutzera.

Kuban 1960ko urtarrilean sartu ziren; zoragarria iruditu zitzaien, La Guara baino politagoa. Habanaren erdi-erdian zegoen Hermanos Valle klinikan hasi ziren lanean lekaimeak.



Kuban urte eta erdi zeramatzatela, iraultzaren bukaera etorri zen eta iraultzaileek Fidel Castro jarri zuten agintari. Castrok erlijioso guztiak Kubatik ateratzeko agindua eman zuen.

Hain azkar aterarazi zituzten Kubatik, non etxean zituzten norberaren gauzak, arropak eta bestelakoak laster batean jaso, eta kaira alde egin behar izan baitzuten. Bidaiarako, laikoz jantzi ziren, takoidun zapata eta guzti. Beldurra pasatu omen zuten. Horren inguruan badu Mª Rosak anekdota polit bat: korrika eta presaka zihoala, zapata galdu omen zuen, eta nahiko larri ibili omen zen. Hantxe hilko zela ere burutik pasatu omen zitzaion.

Espainiarako barkua ondo kargatuta atera omen zen.

Kubatik Bresciara. Kubatik etorri zelarik, 1961ean, Bresciarako destinoa eman zioten. Brescia Italiako iparraldean dagoen hiri handi samar bat da. Hango Casa di cura. Citta di Brescia klinika partikular ireki berrira iritsi zen aurrenetako lekaimea izan zen Mª Rosa. Han egon zen 1961etik 1966ra arte. Italiera oso ongi ikasi zuen; baita organoa jotzen ere, nahiz eta aurretik jakin, han berritu eta hobetu egin zuen.

Karmeldar komunitatea 10 lekaimek osatzen zuten. Mugimendu handiko klinika zen.




Bresciako klinika.

Klinikako kaperan "misio" berri batera, Kuwaitera, abiatzeko bedeinkapena jaso zuen 1966an; Jaunak eskatzen zion beste proba bat zen, eta komunitateak eta berak pozik hartu zuten. Bedeinkapen meza Stella monsinoreak eman zuen; eta, destino berrira abiatu aurretik, Bresciako herriak agur beroa egin zien.

Bresciatik Kuwaitera. Kuwaitera 1966ko azaroaren 7an iritsi ziren Mª Rosa eta beste hiru lekaimeak. Harrera ona egin zieten, pozik zeuden. Ailegatu orduko, tea eskaini zieten, lurralde horretan ohitura duten bezala. Lurralde zaila zen. Bertako hizkuntza ez zekiten; eta arabiera hizkuntza hain arrotza denez, arabierarekin batera ingelesa ere ikasi behar izan zuten. Segituan hasi ziren lau lekaimeak klaseak hartzen.

Hango gobernuak lana egiteko traba handiak jartzen zizkien. Agiri pila eskatzen zizkien eta, batez ere, bakoitzaren praktiketako agiriak. Hori nahiko ez zela, analisiak egin behar izan zituzten, bistaren azterketa pasatu, biriketako X izpiak, bihotzaren azterketa… eta, Jaunari eskerrak, oso osasuntsu ikusi zituzten, eta horrela izan zuten baimena erizain lanean hasteko. Azkenean, hiru urteko kontratua-edo egin zieten lanerako.



Kuwaiten 1966ko azaroaren 7an Monsiorea eta medikuak tea hartzen. Mª Rosa, 2.a da, tea hartzen.

Atsedenaldia hartuta, 1967ko martxoaren 22tik apirilaren 5ra, Lurralde Santuetara bisita egin zuten: Jerusalem, Kaifasen etxea, Omarreko meskita, Harresia, Getsemani, ... Ezusteko batzuk ere hartu zituzten lurralde horretan: "Gure Aita" euskaraz idatzia aurkitu zuten han, eta Lasarteko fraide batekin ere, Javier Camarerorekin, topo egin zuten. Oroitzapen onak eta emozio bereziko egunak izan omen zituzten.

Arabiarrekin hiru urtez lan egin ondoren, 1969ko irailean etxera, baserrira, etorri zen, horretarako baimena eman baitzioten. Egun batzuk familia artean igaro ondoren, Londonera joan zen, ingelesa hobetzera, 1969ko abenduaren 11n; eta 1971ko apirilaren 5ean bueltatu zen.



Mª Rosa eta Aite Olaran Londonen.

Beste eritetxe berezi batera bidali zuten hiru hilabeteko ikastaroa egitera 1971ko udan, **Trillo**ko Leproserira **(Guadalajara)**.

Malawi-Kaphiri. Hurrengo destinoa Malawi-Kaphirira (Afrika) eman zioten, eta misiolaria pozik joan zen; hori baitzen bere bokazioa, beharra zegoen tokian laguntza ematea.

"Eraman gaitzazu, Jauna, beharra dagoen lekuetara, bizia, poza... Zuk erakutsitako guzia eramatera".

Egoera zailenetan ere, ekintzak eta otoitzak, parean.

Malawira 1971ko urriaren 23an iritsi ziren lau karmeldarrak: Angelica Suarez, Pilar Suarez, Amalia Alkaide eta Mª Rosa Aranburu. Horiek heldu zirenerako, baziren urte batzuk karmeldar fraideak han zirela. Fraide horiek ospitalea aurrera eramateko lekaimeak behar zituzten, eta haiek iristerako prest zuten beraientzako etxea.

Inguruan ez zen kilometro askotan beste ospitalerik, eta normala omen zen 500 gaixo artatzen zituzten eguna. Behar handia zegoenez, izugarrizko lana izan zuten.





Beste lekaimeekin Malawi-Kaphirin

Orain dela hilabete gutxi irakurri genuen Afrikako nazio behartsuena Malawi dela. Hango gaitz ugarienak anemia eta malaria ziren, eta gaur egun horiez gain hiesa ere bai. Hiesa maitasunaren gaitza da; hala deitzen diote haiek.

Mª Rosa ailegatu zenean, 40.000 biztanle inguru zituen Kaphirik. Geroztik asko hazi zen, eta ospitalea handitu egin behar izan zuten.

Lana lekaimeen artean banatzen zuten: bat parrokian, beste bat ospitaleko artategian…

Bertako sinesmenek indar handia duten lurraldeak dira, eta espiritu onetan zein gaiztoetan sinesten dute; horiek horrela, kosta egiten zaie bereak ez diren sinesmenetan sartzea.Hango hizkuntza txewera da. Beste hizkuntza bat ikasi behar izan zuten.



Malawi-Kaphiri. Emakume hau "sima" prestatzen ari da. Masa zuria da, arto irinarekin egina (han artoa zuria da). Sua beti etxetik kanpo egiten dute: hiru adreilu jarri, sua egin eta gainean eltzea. Beste eltzean "noliwoa" dauka, guk jakia esango genukeena: barazkia, haragia, arrautzak, oilaskoa edo dena delakoa, simarekin jateko. Otordu bakarra hori dute. Irina zestoan gordetzen dute.

Mª Rosak esaten zuen: "*Gaixo asko eta medikurik ez. Guk egin behar mediku lanak ere. Zailtasunak gainditzen ninduela ikusiz gero, Jaunari esaten nion: 'Nik honaino egin dut, hortik aurrera Zure esku'.*"

Lau urte pasatuta, eta komeria latzak ikusita, 1975ean etorri egin zen.

Malawi-Kaphiritik Calabriara. Erroman egun batzuk egin ondoren, beste misio bat agindu zioten. Italia hegoaldean dagoen Calabriako San Gioacomora, hain zuzen ere.

San Gioacomora iritsi zirenean, negu betea zen. Hotz handia pasatu omen zuten. Paraje pobrea zen, eta jende behartsua bizi zen bertan. Lau karmeldarren lehen lana misio-etxea bera irekitzea izan zen.

Mª Rosa hernaniarrarekin batera, Madrileko lekaime batek, Urduñako beste batek eta Erromako beste batek osatzen zuten komunitatea.

Urte eta erdi egin zuen San Gioacomon; eta hango bere lanak eginda, Espainia aldera berriz ere.

Talavera de la Reina, Toledo. Talavera de la Reinara 1978an iritsi zen eta bertan izan zen 1980ko abuztura arte.

Erizaintzan sakondu ahal izan zuen han, eta lehendik zekiena berritu zuen. Anbulatorioan aritu zen lanean; operatu eta guzti egiten zuten.



Talavera de la Reina. Mª Rosa, eskerretik lehena.

Berriro ere destino berria, Gineara, Afrika.

Riaba, Ginea. Afrika. Riaban 1980tik 1985era izan zen. Hango hizkuntza gaztelania zenez, oraingoan ez zuen beste hizkuntza bat ikasi beharrik izan, lan bat gutxiago; hala ere, nahikoa lan bazuen egiteko. Beste lan batzuen artean, eskulanak egiten, josten, garbitzen, irakurtzen, idazten… irakasten aritu zen.

Hango pasadizo bat ere kontatzen du: "*Behin, gazte batek, kokondo batean aizkorarekin kokoak botatzen ari zela, hankan dezenteko zauria egin omen zuen. Zer egin horrelako egoeran? Bi bider pentsatu gabe, hartu orratza, desinfektatu eta segituan josi.*"

Riaban ere topatu zuen hernaniar bat; zein, eta Placido Bereciartua. Hernaniar hark paraje haietara bidaia dezente egiten zituen. Lagun minak egin ziren, eta, Placido Bereciartua Hernanira etorri zenean, kokoak ekarri zituen, Mª Rosak emanda. Kokoaren ura oso ona omen da.

Ginean zela, Espainiako Gobernuan PSOE jarri zen agintean, eta agindu berriak iritsi ziren. Erlijioso guztiek dokumentazioa aurkeztu behar izan zuten, eta azterketa edo oposizio moduko zerbait gainditu beharrean izan ziren. Nahiko nahasketa izan omen zen. Lekaime eta fraide guztiek gainditu zituzten probak.



Riaban haurrak saltzen dituzte barazkiak.



Azken destinoak, Italian. Gineatik etxe aldera egin zuen. Hemen opor egun batzuk egin eta berriro Bresciara itzuli zen; aurretik, hilabete batzuk pasatu zituen **Sevilla**ko Jesús del Gran Poder erietxean. **Brescia**ra berriro bueltatu zenerako, baziren 25 urte klinika ireki zutela; eta, munduan barrena jira eta bira ibili ondoren, hura izan zuen jubilatu aurretiko destinoa.

Mª Rosa pozik zen, herria, parajea, lana… den-dena ezaguna zuelako.

Padermo-Dugnanon 1994tik 2000ra. Elizaren eta lekaimeen etxearen arduraz gainera, iragaitzazkoei laguntzeko egitekoa zuen. Komunitatea lau karmeldarrek osatzen zuten.

Gaur egungo destinoa, **Travagliato**. Travagliatoko "Casa di Riposo Don Angelo Colombora" 2000ko urriaren 26an iritsi zen. Komunitatean lau karmeldar daude. Ez dituzte, jada, erizain lanak egiten, baina ez dira erretiratu; orain, adinekoei bizi poza ematen laguntzen dute.

Herrira, Hernanira, 2003ko abuztuan inguratu zen egun batzuk igarotzera, 50. urteurrena familiarekin ospatzeko; gero, Italiara itzuli zen, eta han jarraitzen du.

"Eraman gaitzazu, Jauna, beharra dagoen lekuetara, bizia, poza... Zuk erakutsitako guzia eramatera".

Eta horrela, 50 urte, Mª Rosa karmeldar misiolariak.